

GAKO EKONOMIKOAK

- Hegazkortasuna eta kezka izan dira abuztuan protagonista, merkatuek hainbat arriskuri aurre egin behar izan baitiete: atzeraldiari beldurra, merkataritzako gerra larriagotzea, Brexit gogorraren probabilitateak areagotzea eta Argentinako finantza ezegonkortasuna eta emergentei ere hori gertatzea.
- Joan eta etorria izan da burtsetan, nahiz eta hilaren bukaerako igoerak ez diren nahikoak izan lehenengo zatien galera sendoak konpentsatzeko.
- Bonuak izan dira protagonista nagusi, europar zor publikoko interes tasetan minimo berriak lortu dituztelako.
- Yuanak balioa galdu du eta babesztat hartzen diren aktiboak sendotu dira, urrea, esaterako.

MAKROEKONOMIA ETA MERKATUAK

Abuztuaren ezaugarri nagusiak ezegonkortasuna eta hegazkortasuna izan dira. Hainbat ikara bizi izan dira aldi honetan: merkataritzako gerra larritu da, muga zergak gogortuz, tweet zorrotzez eta dibisen gerrara igarotzeko asmoa adieraziz; Hong Kongeko matxinadak; Brexita uste baino okerragoa izatea; emergenteen arazoak, Argentinako krisialdi larria buruan, eta Italiako ezegonkortasun politikoa. Hori guztia munduko desazelerazio ekonomikoa bizi dugunean. Are gehiago fabrikazio eremuetan eta herrialde oso industrializatuetan, Alemania esaterako. Izan ere, hilak aurrera egin ahala, AEB eta Txinaren artean merkataritza negoziazioak bideratzeko aurrerapausoek, biek irailan negoziatioei berriz ekingo dietela adieraziz, merkatuen beldurrak arindu zituzten. Italian Movimento 5 Stelle eta Alderdi Demokrataren artean lortutako adostasun printzipioak ere baikortasuna zabaldu zuen. Koalizioa eratzean, Bruselaren aurka joatea saihestuko duen zerga jarrera zuhurragoa hartzea espero da, hauteskunde berrien arriskua kentzeaz gain. Azkenik, Banku Zentralek ere lagundu dute, duela hamar urte baino gehiagotik lehenengoz Fedek interes tasak jaitsez eta Europako Banku Zentralek neurri berriak irailera aurreratu.

ERRENTA ALDAKORRA

Abuztuaren bukaerako balantzea negatiboa da munduko indize nagusientzat, nahiz eta moderatua izan hilak izan dituen gorabeherak ikusita. Izan ere, azaldu den bezala, ikara ugari bizi izan dituzte burtsek abuztuan; hilaren lehenengo zatian, indize batzuk % 5 galdu zuten, Ibx35ak besteak beste. Halere, albisterik onena G7 bukatu ondorengo Estatu Batuetako eta Txinako liderren arteko bakearen aldeko adierazpenak izan dira. Merkatuak lasaitu eta munduko indize nagusiei hobetzen lagundu zien, lehenengo zatiko galerak konpentsatzeko adina ez bazen ere. Hilaren bukaeran, galera nahiko moderatuekin itxi zen: % 1,8 S&P, % 1,16 Eurostoxxen eta % 2,05 Daxean, egoera larriak igaro ondoren, non S&Pek 2.800 puntu galdu zituen eta Alemaniako Daxa, aldiz, 11.000 puntura hurbildu zen. Bestetik, Macriren porrotak Argentinako hauteskunde primarioetan, desazelerazioari beldurrak eta lehengaien prezioen eboluzioak garesti atera zitzaizkien merkatu emergentei, zeinek jaitziera bortitza izan zuten hilean zehar.

INDIZEA	ESKUALDEA	ORAINGO MAILA	DIBISA	2019ko ALDAK.
IBEX-35	ESPAINIA	8.812,9	EUR	%3,20
EUROSTOXX-50	EUROPA	3.426,76	EUR	%14,17
S&P-500	AEB	2.926,46	USD	%16,74
DOW JONES	AEB	26.403,28	USD	%13,19
NASDAQ 100	AEB	7.691	USD	%21,50
NIKKEI-225	JAPONIA	20.704,37	JPY	%3,45
EMERG. MSCI	EMERGENTEAK	984,33	USD	%1,92
MUNDUKO MSCI	GLOBALA	2.138,521	EUR	%13,52

Iturria: Bloomberg

ERRENTA FINKOA

Kezka areagotzeak, atzeraldiari beldurrak eta Banku Zentralen ekintzak, babes aktiboen eskaera areagotu zuten eta, horri esker, abuztua historikoa izan da zorraren merkatuarentzat, non bonu subiranoek minimo berriak lortu zituzten. Izan ere, hamar urterako Alemaniako zorrak minimoak ezarri ditu hil honetan, % -0,70 hain zuzen. Beharazko mugimendu hori periferiara ere iritsi da, non Espainiako hamar urtekoa % 0,3 inguru hasi zen abuztuan eta % 0,11 inguru bukatu du, % 0,03ra iritsi bada ere. Italiaren kasuan, herrialdeko krisialdi politikoa konpontzeak arrisku prima asko jaitzi zuen. Bestetik, Estatu Batuetako zorrean Fedek tipoak berriz murriztea itxaroteak bonuak erostea eragin zuen, eta horrek, ondorioz, etekinak jaitzi zituen. Errosteke presio honek ondorio garrantzitsuak eragin zituen kurban, errentagarritasunen kurbaren alderantzizkatzea, esaterako: bi urteko bonuek 10 urteko bonuek baino interes handiagoa eskaintzen baitzuten hil bukaeran, % 1,504 eta % 1,496, hurrenez hurren. 30 urteko bonuekin ere beste efektu garrantzitsu bat gertatu zen, gutxieneko historikoa bizi izan baitu (% 1,91). Kreditua, aldiz, pixka bat hobetu da, 2pb gutxiagotuz, hilean zehar.


INDIZEA	EPEA	ORAINGO MAILA	2019ko ALDAK.
EURIBOR	3 HIL.	-0,43	-0,12
	6 HIL.	-0,43	-0,19
	12 HIL.	-0,38	-0,27
ALEMANIAKO ZOR PUBLIKOA	2 URTE	-0,93	-0,32
	5 URTE	-0,92	-0,61
	10 URTE	-0,70	-0,94
ESPAINIAKO ZOR PUBLIKOA	2 URTE	-0,56	-0,32
	5 URTE	-0,37	-0,70
	10 URTE	0,11	-1,31

Iturria: Bloomberg

DIBISAK

Europako makro datuen ahuleziak euroak dollarrarekiko balioa galtzea eragin du, eta hilaren bukaeran 1,10\$ balio zuen euro bakoitzak. Yenarekiko ere galdu du balioa, zeinak babeseke moneta gisa jardun duen. Halere, Yuana izan da abuztuan AEB eta Txinaren arteko merkataritzako gerran su artean ibili dena. Hilean zehar, 7 yuan dolar bakoitzeko gaintu ditu lehenengoz 2008tik, eta 7,15 yuan/dolar balioarekin itxi du abuztua. Bestetik, lehengaietan, kezka ekonomikoek, merkataritzakoek eta geopolitikoek beharazko joera nabarmena utzi zuten petrolioan. Urre ontzak, aldiz, babes aktibo gisa, 1.500 dolarreko balioa gaintu zuen abuztuan. Aurrenekoz 2013tik.

Euro/Dolar



Iturria: Bloomberg